

Txekearen araubide juridikoa

JOSU J. SAGASTI AURREKOETXEA

Merkataritza Zuzenbidearen irakasle titularra

Euskal Herriko Unibertsitatea - Universidad del País Vasco

Europar Batasuneko Jean Monnet irakaslea

AURKIBIDEA: I. SARRERA, KONTZEPTUA ETA FUNTZIO EKONOMIKOA. II. ARAUBIDE JURIDIKOA. 1. Txekearen bidezko jaulkipenerako funtsezko oinarriak. 2. Txekearen formazko oinarriak. 3. Txekearen eskualdaketa. 4. Txekearen aurkezpena eta ordainketa. 5. Txekearen kentzea, ostea eta galtzea. III. TXEKEAREN BORONDATEZKO ETA DERRIGORREZKO ORDAINKETA. 1. Borondatezko ordainketa. 2. Derrigorrezko ordainketa. IV. AKZIOEN GAINBEHERA ETA PRESKRIPZIOA. V. TXEKE BEREZI MOTAK.

I. SARRERA, KONTZEPTUA ETA FUNTZIO EKONOMIKOA¹

Txekea diruzko banku-gordailuekin lotuta dagoen balore-titulua da. Txekea, gordailugileak banku-gordetzailearen kontra ikustean igorritako

¹ Oinarrizko bibliografia: ÁVILA DE LA TORRE, Alfredo: *Sentencia del Tribunal Supremo (Sala 1ª), de 31 de Julio de 1995. Revocación del Cheque: Posición Jurídica del Librado en el Cheque: Extorno en Cuenta Corriente*, en «Revista de Derecho Privado. N.º 80», Madrid, 1996, págs.849-861; *Apuntes sobre la Responsabilidad del Usuario de Cheques derivada del Pago de un Cheque Falso o Falsificado*, en «Estudios sobre Consumo. N.º 48», Madrid, 1999, págs.163-169. BALDÓ DEL CASTAÑO, Vicente & CALAVIA MOLINERO, José Manuel: *El Cheque. Estudio Sistemático de la Ley del Cheque de 16 de Julio de 1985*, Praxis, Barcelona, 1987. BATLLE SALES, Georgina: *Pago del Cheque Falso. Responsabilidad del Banco*, Tecnos, Madrid, 1991. BOTANA AGRA, Manuel José: *Líneas Básicas del Régimen del Cheque en la Ley Cambiaria y del Cheque*, en «Actualidad Civil», Madrid, 1986, págs.2077-2095. CÁMARA MINGO, Luis María: *Notas sobre la Circulación del Cheque en la nueva Ley de 16 de*

Julio de 1985, en «La Ley: Revista Jurídica Española de Doctrina, Jurisprudencia y Bibliografía. N.º. 2», Madrid, 1986, págs. 1036-1048. CLIMENT DURÁN, Carlos: *La Responsabilidad Bancaria por el Pago de Cheques Falsificados*, en «Revista General de Derecho. N.º.596», Valencia, 1994, págs.4947-4955. DE ARRILLAGA, José Ignacio: *El Cheque Turístico*, en «Anuario de Derecho Civil. N.º.1», Madrid, 1961, págs..59-119. FORNIÉS BAIGORRI, Ascensión: *Estudio del Cheque en la Ley Cambiaria de 16 de Julio de 1985*, Zaragoza, 1986. GALÁN CORONA, Eduardo: *El Cheque Postal de Pago. Consideraciones sobre su Régimen Jurídico*, Universidad de Salamanca, 1979; *Notas sobre la Nueva Regulación del Cheque*, en «Actualidad Civil», Madrid, 1986, págs.2229-2241. GARRIGUES, Joaquín: *Sobre el Concepto del Cheque y del Contrato de Cheque*, en «Revista de Derecho Mercantil. N.52», Madrid, 1954, págs.7-26. GIRGADO PERANDONES, Pablo: *En torno a la Denominación de Cheque como Requisito Esencial y la Validez frente a Terceros de la Confirmación de un Cheque por Persona No Autorizada*, en «Revista de Derecho Bancario y Bursátil. N.º.71», Madrid, Julio-Septiembre, 1998, págs.875-908. GÓMEZ PORRÚA, Juan Manuel: *El Delito de Cheque en Descubierto y la Nueva Ley Cambiaria*, en «Revista de Derecho Bancario y Bursátil. N.º.23», Madrid, 1986, págs.581-620. GÓMEZ SEGADE, José Antonio: *La Confirmación Telefónica de Cheques*, en «Estudios de Derecho Bancario y Bursátil: Homenaje a Evelio Verdera y Tuells. Volumen II», coordinado por Antonio Polo Díez, Wolters Kluwer, Madrid, 1994, págs.1197-1210. JIMÉNEZ SÁNCHEZ, Guillermo J.: *El Cheque Garantizado*, Sevilla, 1973. MAJADA, Arturo: *Cheques y Talones de Cuenta Corriente*, Santillana, Madrid, 1963. MARINA GARCÍA-TUÑÓN, Ángel: *La Responsabilidad por el Pago de Cheque Falso o Falsificado*, Lex Nova, Valladolid, 1993. MENÉNDEZ MENÉNDEZ, Aurelio: *Derecho Cambiario. Estudios sobre la Ley Cambiaria y del Cheque*, Civitas, Madrid, 1986. MILLÁN GARRIDO, Antonio: *Cheque y Postdatación*, en «Revista de Derecho Bancario y Bursátil. N.º.18», Madrid, 1985, págs.389-421. MOXICA ROMÁN, José: *Ley Cambiaria y del Cheque. Análisis de Doctrina y Jurisprudencia*, Thomson Reuters Aranzadi, Cizur Menor, 2015. MUÑOZ MARTÍN, Noemí: *La Irrevocabilidad del Cheque*, en «Estudios Jurídicos en Homenaje al Profesor Aurelio Menéndez. Volumen 1», coordinado por Juan Luis Iglesias Prada, Civitas, Madrid, 1996, págs.1293-1320. MUÑOZ PAREDES, María Luisa: *Consideraciones sobre la Revocación del Cheque*, en «Revista de Derecho Bancario y Bursátil. N.º.112», Madrid, 2008, págs.97-119; *Efectos del Concurso del Librador y del Beneficiario sobre el Cheque Emitido*, en «Anuario de Derecho Concursal. N.º.18», Madrid, 2009, págs.145-167. ORTIZ DE URBINA GIMENO, Iñigo: *Responsabilidad Civil Subsidiaria de Entidad Bancaria por Pago de Cheques Falsos o Falsificados*, en «Revista de Derecho Bancario y Bursátil. N.º.79», Madrid, 2000, págs.215-237. RAMOS HERRANZ, Isabel: *Verificaciones que ha realizado el Banco Librado con ocasión de Pago de Cheques*, en «Revista de Derecho Bancario y Bursátil. N.º.60», Madrid, 1995, págs.991-1042; *El Pago de Cheques como Servicio Inherente al Depósito de Fondos*, en «Derecho de los Negocios. N.º.58-59», Madrid, 1995, págs.1-8; *La Compensación Bancaria de Cheques: hacia el Sistema Nacional de Compensación Electrónica como Sistema Único*, en «Derecho de los Negocios. N.º.93», Madrid, 1998, págs.11-28; *Cheques Electrónicos*, en «Revista de Derecho Mercantil. N.º.229», Madrid, 1998, págs.1223-1250; *El Pago de Cheques. Diligencia y Responsabilidad del Banco*, Tecnos, Madrid, 2000. SÁNCHEZ-CALERO GUILARTE,

truke-letra gisa sortu zen, banku-gordetzailak arin ordain zezan². Txekearen helburua banku pribatuek zuten debekua saihestea zen, ez zitzaielako baimentzen banku-billeteak igortzea eskudiruaren truke. Anglosaxoi esparruan sortu zen eta ekonomia kontinentaletara pasatu zen; Espainian 1885eko Merkataritza Kodean arautu zen lehen aldiz [534-543. artikulua]; arauketa hau Kanbio eta Txeke Legeak indargabetu zuten [106-167. artikulua]³.

Txekearen funtzio ekonomikoa bere bi funtsezko ñabarduren bitartez uler daiteke errez; alde batetik, txekearen lotura diru banku gordailuekin edo fondoan erabilgarritasuna bakuan –zeinen kargura txekea igortzen baita– ematen duten kreditu-eragiketekin⁴; bestalde, ordainketa baliabi-

Juan: *Pago de Cheque Falso. Negligencia del Banco y del Titular de la Cuenta*, en «Revista de Derecho Bancario y Bursátil. N.º.35», Madrid, 1989, págs.641-669; *La Firma Estampillada como Causa de Nudidad (que no de Falsedad) del Cheque*, en «Revista de Derecho Bancario y Bursátil. N.º.81», Madrid, 2001, págs.163-183. SÁNCHEZ LORENZO, Sixto Alfonso: *Cheques y Cheques Especiales*, en Derecho del Comercio Internacional, Eurolex, Madrid, Eurolex, 1996, págs. 440-446. TAPIA HERMIDA, Alberto Javier: *Irresponsabilidad del Banco por el Pago de un Talón Sustraído y Presentado con Defectos Formales (Sentencia del Tribunal Supremo, de 16 de Noviembre de 1983)*, en «Comentarios a Jurisprudencia de Derecho Bancario y Cambiario. Volumen I», coordinado por Francisco Javier Sánchez Calero & Juan Sánchez-Calero Guilarte, Centro de Documentación Bancaria y Bursátil, Madrid, 1993, págs.403-432. VEGA PÉREZ, Félix: *Responsabilidad Bancaria por Impago Indebido de Cheque (Sentencia de la Audiencia Territorial de Barcelona, Sala 2ª, de 7 de Mayo de 1982)*, en «Comentarios a Jurisprudencia de Derecho Bancario y Cambiario. Volumen I», coordinado por Francisco Javier Sánchez Calero & Juan Sánchez-Calero Guilarte, Centro de Documentación Bancaria y Bursátil, Madrid, 1993, págs.293-302. VÉRGEZ SÁNCHEZ, Mercedes: *La Responsabilidad del Banco frente al Tenedor del Cheque*, en «Estudios de Derecho Bancario y Bursátil: Homenaje a Evelio Verdura y Tuells. Volumen III», coordinado por Antonio Polo Díez, Wolters Kluwer, Madrid, 1994, págs.2723-2734. ZURITA Y SÁENZ DE NAVARRETE, Jaime: *El Régimen del Cheque en el Proyecto de Ley Cambiaria y del Cheque*, en «Revista de Derecho Bancario y Bursátil. N.º.16», Madrid, 1984, págs.717-736.

² Hau kontuan izanik, lege ingelesak honela izendatzen du. “Txekea bankari baten gainean eta bistara ordaindu behar den truke-letra da” –«*Bill of Exchange Act, 1982*»: 73.1 artikulua-.

³ Uztaillaren 16ko 19/1985 Legea, Kanbio eta Txekearena [KeTXL].

⁴ Kanbio-Legeak espresuki ezartzen du libratua banku bat izan behar dela [KeTXL 106.3 eta 108 artikulua]; gaur egun, kontzeptu hori kreditu-erakunde gisa ulertu

dea da –eta ez kreditu baliabidea–, fondo horien libratzaile titularrak erabili ahal duena bere zorrak ordaintzeko, eskudirua erabili gabe⁵. Zordunak hartzekodunari txeke bat ematen dio bere diru-zorrenaren zenbatekoarekin, funtsak dituen bankuaren gainean igorrita; modu honetan, hartzekodunak, txekea eskuratzean, bai kobratu ahal du bera zuzenean bere leihatiletan, bai bere bankuari eman ere, honek kobrua kudeatzeko eta zenbateko hori hartzekodunaren banku-kontuan sartzeko. Hala ere, era berean, txekea jasotzen duen hartzekodunak, txeke hori, gainera, bere zor bat ordaintzeko erabil dezake, bere hartzekodunari eskualdatuz.

Azken bi inguruabar hauek, txekearen funtsezko funtzio ekonomikoa diru-zorrak ordaintzeko baliabidea izatea dela adierazten dute; horrela, ez da beharrezkoa diru-paperik ematea, zein, egitez, ordezkatu egiten baitute ordainketa baliabide gisa, bai toki berean, bai toki ezberdinetan [naziokoak edo nazioartekoak]. Txekea ere libratzaileak berak bankutik funtsak ateratzeko erabil daiteke –nahiz eta gaur egun funtzio hau oso gutxitan erabili–. Era berean, banku-terminologiak «txeke» izendapena banku batek beste banku baten gainean igortzen dituen txekeentzat gordetzen du, partikularrek bere bankuen gainean igorritakoak «ta-loiak⁶» izendatuz.

Txekeak daraman ordainketa agindua jasotzen duen bankuak, txekea ordaindu egingo du, kobratzeko aurkezten baldin bada, edo hartzaileak bere kontu-korrontean ezartzen badu, hartzekodunaren bankuarekin

beharko litzateke: ez soilik Banku eta Bankarien Erregistroan inskribaturik daudenak, baizik eta beste edozein kreditu erakunde kidetua ere bai.

⁵ Kode Zibilaren arabera, ordainketaren eraginak ukandunak txekea benetan kobratzen duenean baino ez dira burutzen –KZ 1170. artikulua–.

⁶ Agiri honek, Merkataritza Kodearen indar gabetutako 534. artikulutik 543. artikulura arteko edukia arabera, «taloi» izena jaso izan zuen. Kanbio eta Txeke Legeak, aldiz, –Merkataritza Kodeak ez bezala [534. artikulua]– ez du agiri hau definitzen. Hala ere, txeke bat igortzen duenak libratuari –kreditu-erakundeari– diru kopuru bat bistara ordaintzeko agindua edo mandatu adierazten dio [KeTXL 106.2].

konpentsazioz likidatu egingo du; edonola ere, bi kasutan libratzaileak nahiko funtsa izan beharko du –funtsa hornidura–.

Kanbio-legeak zenbait helburu ezarri ditu txekeari buruz; alde batetik, txekearen kobrantzan segurtasuna sendotu nahi izan du; bestalde, agiriaren tratamendu informatikoen zenbait ahalbide aurreikusi ditu; hirugarrenik, txekea doitasun prozesal handiagoz hornitzen du, bereziki betearazle judizioan –gaur egun, kanbio-judizioa⁷–; laugarrenik, Kanbio-legeak 1931ko «*Ley Uniforme de Ginebra*» deritzon legea barneratu du, nahiz eta zenbait berrikuntza edo desberdintasun ere gehitu.

Azkenik, gaur egungo teknologia aurrerapenak txekean –eta, oro har, balore tituluetan– eragina izan dute, horren erakuspen nabaria Argentinako Lege erreforma izanik. Erreforma honen bitartez, «*kartular*» izaera ez duten balore-tituluak sortzen dira; hau da, balore-titulu digital edo elektronikokoak⁸.

⁷ Txekea, bere zenbatekoaren ezinbesteko ordainketari dagokionez, truke-letrarekin erabat parekatzen da.

⁸ 2014ko Azaroaren 7ko 26.994 Legea, Argentinako Kode Zibil eta Merkataritza Kodea onesten duena –Lege hau 2016ko Urtarrilaren 1ean indarrean sartu zen–: “Títulos valores no cartulares ARTÍCULO 1850.- Régimen. Cuando por disposición legal o cuando en el instrumento de creación se inserta una declaración expresa de voluntad de obligarse de manera incondicional e irrevocable, aunque la prestación no se incorpore a un documento, puede establecerse la circulación autónoma del derecho, con sujeción a lo dispuesto en el artículo 1820. La transmisión o constitución de derechos reales sobre el título valor, los gravámenes, secuestros, medidas precautorias y cualquier otra afectación de los derechos conferidos por el título valor deben efectuarse mediante asientos en registros especiales que debe llevar el emisor o, en nombre de este, una caja de valores, una entidad financiera autorizada o un escribano de registro, momento a partir del cual la afectación produce efectos frente a terceros. A los efectos de determinar el alcance de los derechos emergentes del título valor así creado debe estarse al instrumento de creación, que debe tener fecha cierta. Si el título valor es admitido a la oferta pública es suficiente su inscripción ante la autoridad de contralor y en las bolsas o mercados en los que se negocia. Se aplica respecto del tercero que adquiera el título valor lo dispuesto por los artículos 1816 y 1819”. *Ikus MORA, Santiago J.: Letras de Cambio, Pagars y Cheques no Cartulares, Electrónicos o Digitales, en el Derecho Argentino*, en «Revista Aranzadi de Derecho y Nuevas Tecnologías. N° 46», Madrid, Enero-Abril 2018, pp. 1-22.

II. ARAUBIDE JURIDIKOA

Nahiz eta truke-letrarekin antzekotasun handia izan, Kanbio eta Txekearen Legeak txekearen arautze zehatza eskaintzen du bere 106.tik 167.ra artikuluetan, bidalketa prozedurarik erabili gabe⁹.

1. Txekearen bidezko jaulkipenerako funtsezko oinarriak

1. *Funtsen hornidura.* Txekearen lehen ñabardura libratzaileak, bere jaulkipenean, banku libratuaren manupean funtsak izatea da. Eskakizun honen zergatia hurrengo hau da; txekeak berehala ordaintzeko mandatua barneratzen du, bankuak txekea aurkezten den momentuan bete behar duena; beraz, bere ukandunaren interesa kalteturik gera daiteke aurkezpen unean funtsik ez balego. Txekearekiko konfiantza, ordainketa baliabide gisa, jaulkipen unean hornidura izatean datza; bestela, bankuak ez baitu ordainduko. Funtsa hornidura egongo da baldin eta banku libratua igorlearen zorduna bada txekean ezarritako zenbatekoan gutxienez. Hornidura hori gordailu eragiketaren bidez edo kreditu irekieraz edo bankuak igorleari emandako maileguaz sortu daiteke. Truke-letraren kasuan ez bezala, txekearen jaulkipen unean funtsa hornidura izatea txekearen bidezko jaulkipenerako funtsezko oinarria bihurtzen da lege – KeTXL 108. artikulua–, nahiz eta bere ezak txekea ez baliogabetu.

2. *Funtsaren erabilgarritasuna.* Txekea bidezko moduan igortzeko bigarren oinarria igorleak libratuaren manupean dauden funtsak bere kontra jaulkitako txekeen bidez erabili ahal izatea da. Ez da nahikoa libratuaren manupean funtsak izatearekin; ezinbestekoa da txekearen bitartez hauek erabili ahal izatea. Hau «txeke-zko» deritzon kontratuaren bitartez lortzen da –normalean, kutxa-zerbitzuarekin lotuta egoten da– eta bankuak bezeroari dagokion txeketegia ematen dionean azaltzen da; une

⁹ Ordaindukoarekin, aldiz, eragorpen teknika zuzenean erabiltzen du.

horretatik libratzaileak igortzen dizkion txekeak ordaintzera behartuta geratzen da, baldin eta igorle bezeroaren alde funtsa eskagarriak baditu¹⁰.

KeTXL 108.3. artikulua igorpen unean dagokion funtsa-hornidura egin gabe txekea jaulkitzen duen igorleari ondorio berezia ezartzen dio; hau da, kalte galeren ordainez gain, ukandunari, gainera, txekearen bete gabeko zenbatekoaren ehuneko hamarra ordaindu beharko dio; bi obligazioak kanbio-akzioaren bidez erreklamatu ahal dira, bai ohiko bidez –dagokion adierazpenezko judizioaren bitartez–, bai kanbio-judizio bidez –KeTXL 149.4. artikulua–. Titular berberaren izenean zenbait banku-kontu korrante baleude, funtsen hornidura izatea edo ez izatea txekea jaulkitzen den kontu korronteari buruz ezarri beharko litzateke; hain zuzen ere, bankuak emandako txeketegiaz zehazturik dagoenari buruz, titular berberaren banku-kontu guztiak elkarren artean lotzea erabakitzen ez den bitartean.

Hartzekodunak txekearen jasotzea onartzen duenean, beharrezkoa da galdetzea noiz sortzen diren ordainketa eraginak; hau da, zein unetan ulertzen den txekearen ematea justifikatzen duen obligazioa beteta geratzen dela. Gure Zuzenbide Positiboan erantzuna argia da: ordainketa eraginak ez dira betetzen txekea ematen den unean, baizik eta banku libratuak edo, honen ezean, igorle atzerakor obligatuak –edo endosatzailak– txekea benetan ordaintzen dutenean. Horrela adierazten du Kode Zibileko 1.170.2. artikulua; artikulua honek, gainera, hurrengo hau ezartzen du; hau da, txekea diruzko obligazioa betetzeko ematen denean, bere betepena eskatzeko kausazko akzioa eten egingo dela, bere kobrua edo bere kaltetzea, hartzekodunaren erruz, gauzatu arte. Txekearen ematea *pro solvendo* –eta ez *pro soluto*– lagapena da.

¹⁰ KeTXL 108. artikulua: "... funtsak igorlearen eskura, ageriko edo isileko akordioaren arabera, zeinen bitartez igorleak halako funtsak txekearen bidez erabiltzeko eskubidea baitu".

2. Txekearen formazko oinarriak

Txekea formazko izaera duen balore-titulua da; beraz, bere aurkezpen unean legeak adierazten dituen funtsezko betekizun guztiak izan behar ditu –KeTXL 106. artikulua–. Horrela ez balitz, txekea izateari utziko lioke, kanbio-eraginak ez dituen dokumentu orokor bat bihurtuz –KeTXL 107. artikulua–, legeak berak aipamenaren hutsunea –truke-letraren kasuan bezala– zuzentzen ez badu.

KeTXL 106. artikulua arabera, bere funtsezko betekizunak hurrengoak dira:

1. *Jaulkipenari dagokionez*, agiriak «txeke» izendapena izan behar du –KeTXL 106.1. artikulua–; jaulkipen data [urtea, hilabetea eta eguna] eta lekua ere eduki behar ditu. Jaulkipen datak ukandunak txekea kobratzeko dituen aurkezpen epeak zenbatzeko balio du: hamabost egun, txekea Espainian jaulki eta ordaintzen baldin bada,; hogeitun egun, txekea Europan jaulki eta Espainian ordaindu beharko balitz eta hirurogei egun, txekea Europatik kanpo jaulki eta Espainian ordaindu beharko balitz –KeTXL 135 eta 136. artikulua–. Nahiz eta legeak ez aipatu, bankuek txekeak beraiek beren bezeroei eskaintzen dizkieten txeketegi berezien bitartez igortzea behartzen dute.

2. *Elementu pertsonalei dagokienez*, txekeak nahitaez hurrengoak adierazi beharko ditu: igorlearen eskuzko sinadura –KeTXL 106.6. artikulua eta Lehenengo Azken Xedapena¹¹; libratuaren izena, zein nahitaez banku edo finantzaketa erakunde bat izango baita –KeTXL 106.3, 108 eta

¹¹ Igorlearen ordezkariak sinatu ahal izango dute, baldin eta sinadura-aurrekoan egoera hori espresuki adierazten bada –KeTXL 116 eta 117. artikulua–.

2005eko Abenduaren 9ko Auzitegi Gorenaren Epaiak –AGE– hurrengoak adierazten ditu: Merkataritza konpainiaren administratzaileek edo kudeaketa sozialaz aritzen direnak duten sinadura ahalmenak truke-letrak soilik barnean hartzen dituela eta ez dela txekeen jaulkipena egiteko ahaldunetara hedatzen.

159. artikulua- Legeak, txekea baliagarria izateko, ez du behartzen hartzailea zehaztea –KeTXL 111 eta 112. artikulua-.

3. *Txekeak bereganatzen duen obligazioari dagokionez*, legeak zenbatekoa edo kopurua moneta nazionalan –eurotan– edo kotizazio ofizialera bihurtu daitekeen atzerritar monetan adieraztea agintzen du¹². Azkenik, ordainketa egin behar den tokia aipatu behar da; dena den, aipamen hori bankuek eskaintzen dituzten txeketegietan inprimaturik agertzen da.

Funtsezko klausula hauekin batera, aukerabideko klausulak daude –trukelretan bezala–: gasturik gabe, endosua nire erantzukizunik gabe, bahian emandako balorea, txeke gurutzatua, konformatuta edo bermatua, etab. Hala ere, Legeak aukerako izaera esleitzen die aurreko paragrafoetan ezarritako klausulak ez bezalako “txekean ezartzen diren” beste zenbait klausulei –KeTXL 107.2. artikulua-.

Era berean, Legeak zenbait lege-konponbide aurreikusten ditu zenbait formazko akats osatzeko. Horrela izaten da bi kasutan; alde batetik, ordainketa tokia adierazten ez denean, uste izaten da hura libratuaren izenaren aldamenean agertzen den tokia dela; bestalde, jaulkipen tokia ezartzen ez denean, hartzat igorlearen izenaren aldamenean agertzen den tokia hartzen da.

Kanbio-letran ez bezala, Legeak txekean ezarritako edozein korritu aipamena idatzi gabeko klausula bezala hartzen du –KeTXL 113. artikulua- eta 119. artikuluan txeke zuria arautzen du.

3. Txekearen eskualdaketa

Balore-titulu oro bezala, txekea agiri eskualdagarria da; hala ere, ordainketa tresna –eta ez kreditu tresna– izateak eta, bereziki, aurkezpen-

¹² Zenbatekoa, legeaz, ez da nahitaez letraz eta zenbakiz batera ezarri behar. Edonola ere, bien artean desadostasuna balego, *ikus* KeTXL 115. artikulua.

rako bere epea laburra izateak, bere eskualdagarritasunaren erabilera murriztu egiten dute.

Edozein balore-titulutan bezala, bere legea edo zirkulazio-araubidea, bere titularra izendatu den formaren menpe dago. «*Eramailearen txeeak*¹³» beren emate edo «*traditio*» hutsaren bitartez eskualdatzen dira, beraien edukinean inolako idatzizko borondate adierazpenik ezarri beharrik gabe – KeTXL 120.1. artikulua–. Edukitzaile hutsa zilegiturik dago libratuari kobrantza eskatzeko. Bestalde, «*Agindurako txeeak*» pertsona zehatza –bai «agindurako» klausularen bidez, bai horrelakorik gabe– adierazten dutenak dira eta endosuaren bidez eskualdatzen dira; hau da, agirian endosuaren adierazpenak edo betekizunak ezarriz eta endosu-hartzaileari emanik – KeTXL 121 eta 122. artikulua–. Gainerakoan, endosuaren bitartezko txekearen eskualdaketa araubideak, legeak kanbio-letraren eskualdaketa-entzatzat ezartzen duenarekin antzekotasun handia du –KeTXL 14-tik 24-ra eta 120-tik 130-era artikulua–. «*Zuzeneko txee izendunei*» dagokionez [«ez agindurako», «ez endosagarria» edo antzeko klausulak dituztenak], igorlearen borondatea hurrengo da; hau da, txeeak agirian bertan hitzez hitz adierazten den pertsonari soilik ordainduko zaiola. Kasu honetan, txeeak kredituen ohiko lagapenerako ezarritako formaz eta eraginekin baino ezin izango da eskualdatu –MK 347 eta 348. artikulua eta KeTXL 24 eta 120.3. artikulua–.

4. Txekearen aurkezpena eta ordainketa

Txeea aurkezpen titulua da; beraz, bere ukandunak aurkeztu behar dio libratuari bere helbidean, ordainketa eskatuz¹⁴. Gainera, «berreskuratze agiria» da; beraz, libratuak, ordainketa unean, jatorrizko titulua ema-

¹³ Legeak «*Eramailearen txeeak*» hurrengo modu honetan eratzen du, hau da, bai kobratzeko aurkezten den unean ukandunaren aipamenik ez duena, bai «*eramailearentzako*» aipamena edo bezalako terminoa duen txee izenduna –KeTXL 111. artikulua–.

¹⁴ 2004ko Abenduaren 10eko AGE.

tea eskatu ahal du eta libratuak txekea izateak hurrengo uste hau sortarazten du; hau da, berak bidezko ukandunari ordaindu diola.

Txekearen aurkezpenak, bera ordaindu ahal izateko, hurrengo ñabardurak ditu: Kanbio-Legeak txekea bistara ordaindua izateko printzipioa sendotu egiten du –KeTXL 134. artikulua–; ordainketarako aurkezpena epe samar laburretan egitea eskatzen da, nahiz eta epeak Merkataritza Kodearenak baino luzeagoak izan –KeTXL 135. artikulua–; txekea Konpentsazio Ganbara edo Ordainketa bidez aurkezteari eraginkortasuna ematen zaio –KeTXL 137. artikulua¹⁵– eta, azkenik, zatikako ordainaren ahalbidea sendotzen da, eramaileari halako zatikako ordainketa onartu beharra inposatuz –KeTXL 140.2. artikulua–.

Txekearen aurkezpena nahitaeztekoa da bere ordainketa lortu ahal izateko, baina ez du balio edozein aurkezpenak. Kobrantzarako aurkezpena eraginkorra izateko, araupeztokoak izan behar du; hau da, hark hurrengo inguruabarrak izan behar ditu: a) txeketegia igorri den libratuaren helbidean egiaztatzea, alegia, igorleak, bere esanetara, funtsak dituen erakundean; guztia hau txekea hirugarren baten helbidean ordaintzeko igorria izan ez bada –KeTXL 114. artikulua–; b) kobrantzarako aurkezpena egiten duen ukanduna txekearen edukitzaile zilegia izatea –KeTXL 125. artikulua¹⁶–; c) txekea legeak eskatzen dituen funtsezko adierazpen edo klausula guztiak edukiz aurkeztea; d) azkenik, txekea, igorpen tokiaren arabera, legeak ezarritako epemugen esparruan aurkeztea –KeTXL 135, 136, 152 eta 160. artikulua–. Betekizun guzti hauek beharrezkoak dira txekea ukandunak libratuaren helbidean aurkezten duenean bere zenbatekoa dirutan jasotzeko. Aldiz, ukandunak bere bankuari ematen dionean –bere balioa bere kontuan ordaintzeko–

¹⁵.1994ko Martxoaren 30eko AGE.

¹⁶ Legitimazioa, txekea igorri den moduaren arabera –«eramaileari», «agindura» edo «zuzeneko txeke izenduna»–, ezberdina izango da; azken bi kasutan, bankuak ukandunaren identifikazioa eskatu beharko du, tituluan agertzen denarekin bat-datorren egiaztatzeko.

zenbait aldaketa izaten dira, bankuek elkarrekiko txekeekin egiten dituzten konpentsazioaren ondorioz.

Betekizun guzti hauek betetzen badira, ukandunak bere aurkezpen arretatsu egin beharra bete izango du. Txekea, bere aurkezpen soilaz, gal-dagarria da; beraz, aurkezpena ordainketarako eskatze askia da. Libratuak, era berean, tituluaren erregularitasun formala eta ukandunaren legitimazioa egiaztatu beharko ditu¹⁷. Beraz, hori egingo ez balu eta, aldiz, ordainketa egingo balu, bidegabeki ordainduko luke eta haren ondorioak jaso beharko lituzke. Legearen 141. artikulua bankuari beharrezkoa duen arreta betetzea ezartzen dio, endosatua izan den txekearen ukandunaren legitimazioa aztertuz –endosuen erregularitasuna egiaztatuz–, baina ez endosatzaileen sinaduraren benetakotasuna. Bestalde, Legearen 156. artikulua bankuari –beronen izaera profesionala dela-eta– txeke faltsu edo faltsutuen ordainketan erantzunkizuna ezartzen dio –nahiz eta fede onaz aritu¹⁸–, libratzailea erru edo arduragabekeria erori izan ezean¹⁹. Libratzaile eta banku libratuaren erruak batera gertatuko balira, jurisprudentziak kalte banatzearen alde egiten du, erruen konpentsazio doktrina dela-eta –% 50eko banatze ustetik abiatuz–²⁰. Era berean, bien errurik ez balego, kalte banku libratuak onartu beharko du, bai kontratu erantzukizun edo bai kontratuz kanpoko erantzukizuna direla-eta²¹. Honi

¹⁷ Endosu-hartzaile bati ordaintzen zaionean, endosu katearen erregularitasuna egiaztatu beharko da. Legearen 141. artikulua bankuari endosatutako txeke baten ukandunaren legitimazioa behar den bezalako arretaz egiaztatzea eskatzen dio, endosuen erregularitatea konprobatuz. Aldiz, ez dio eskatzen endosu-emaileen sinadura egiazkoa den ala ez zehaztea.

¹⁸ Besteak beste, 2005eko Irailaren 22ko eta 2007ko Martxoaren 29ko AGE-k.

¹⁹ Funtsean, legeak espresuki aipatzen duen txeketegiaren zaintza. *Ikus* 2014ko Apirilaren 4ko AGE.

Era berean, erabaki izan da bankua txekearen ordainketaren erantzulea dela, txekea sozietate libratzailearen enpleguak jaulkitzen duenean bere sinadura zigilatu ez eskuzko sinaduraren bitartez; kasu honetan, txekea ez da faltsua, deseuz baizik –2000ko Maiatzaren 17ko AGE–.

²⁰ 1994ko Uztailaren 18ko eta 1995eko Martxoaren 9ko AGE-k.

dagokionez, deusezak adierazi beharko lirateke –abusuzkoak baitira– banku libratuaren erabateko erantzukizun eza ezartzen duten klausulak²².

Legeak bere 135. artikuluan ezartzen dituen txeke ordainketaren aurkezpenarako epeei buruz zenbait azalpen eman behar dira. Lehenengoa: edukitzaileak txekea legeak ezarritako epeen barruan aurkeztu behar du; bestela, txekea kaltetu egingo da. Kalte honen ondorioei dagokionez, edukitzaileak bere zenbatekoa eskatzeko eskubidea galdu egingo du: endosatzaileei eskatzekoa, dena den –KeTXL 146.1. artikulua– eta libratzaileari eskatzekoa, libratuaren esku dagoen egindako hornidura desgertuko balitz libratua konkurtso egoeran adierazten delako –KeTXL 146.2. artikulua–. Azken kasua alde batera utzita, hurrengo egoera hau sortzen da; hau da, ea ordainketa egin ahal den epealdia amaitu ondoren. Erantzuna baiezkoa da, banku libratuak epea amaitu ondoren ordain ahal baitu –KeTXL 138.2. artikulua–. Hala ere, ondorio nagusia hurrengo hau da: epea igaro ondoren, txekea ezeztatu ahal da; beraz, posiblea izan litzateke bankuak –ordainketa egin nahi izan arren– ordainketa egiteko funts–hornidurik ez izatea. Aldiz, ezeztapena egiten ez bada eta bankuak kobrantza aurkezpenaren momentuan libratzailearen eskura funtsak baldin baditu –nahiz eta aurkezpena garaiz kanpo egin–, uste da libratua ordainketa egitera beharturik dagoela –KeTXL 108.2. artikulua–.

Txekea *post-daturik* dagoenean –jaulkipen dataren osteko beste bat ezartzen denean–, inplizituki libratzailearen borondatea hurrengoa dela uste izaten da: txekearen kobrantza aurkezpena atzeratzea txekean jarritako geroko datara arte²³. Hala ere, dudarik gabe, jokabide honekin txe-

²¹ 2003ko Martxoaren 24ko AGE.

²² 1/2007 LEGEGINTZAKO ERREGE DEKRETUA, 2007ko azaroaren 16koa, Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Defentsarako Lege Orokorren eta beste Lege Osagarri batzuen Testu Bategina onesten duena –KEDLOTB– 86. artikulua. *Ikus* 2009ko Abenduaren 16ko AGE.

²³ E.B.: Data hartan dagokien funtsa hornidura izango delakoan.

kearen funtzioa desnaturalizatu egiten da: ordainketa baliabidea izatetik kreditu tresna bihurtzen da; neurri batean, truke-letraren parekagarria bihurtuz. Horregatik, KeTXL 134. artikulua –Genevako Uniforme Legea jarraituz-, *post-daturik* dagoen txekea bere aurkezpen egunean –nahiz eta hau jaulkipen data gisa ezarrita dagoena baino lehenago izan– ordainduko dela ezartzen du. Kasu horietan, edukitzaileak adierazitako data baino lehenago aurkezteko ahalmena du eta bankuak bere aurkezpenean ordaindu ahal izango du. Funtsa hornidura ezaren ondorioak bere aurkezpen datara eratorriko dira.

Garrantzi handiko gaia da, ea, aurkezpen epealdiaren barnean, libratzaileak txekeak bere barnean daraman ordainketa agindua zilegitasunez ezeztatu ahal duen, bankuari bere aurkezpen unean ez ordaintzeko agindua emanik. Leheri latindarretan ezezko erantzuna izan da tradizioz nagusia, libratzailea edukitzailearen aurrean ezeztazinez loturik geratzen delako, bai txekea eman zionean adierazi zion ordainketa hitza, bai txekeak ebatze baliabide gisa duen konfiantza babestea direla-eta. Konponbide hau onartu daiteke ezeztapena bidegabea eta arbitrario bada, baina zehaztu egin behar da beste kasu batean; hau da, libratzaileak ez ordaintzea agintzen duenean, txekearen jaulkipena funtsatzen duen kausazko harremanak horrela justifikatzen duenean –e.b.: libratzaile-erosleak merkatugaiak jasotzen ez dituztenean edo hauek akatsak dituztenean–. Zentzu honetan, Kanbio eta Txeke Legea argia da, hurrengo hau ezarriz: aurkezpenaren lege-epealdiaren barnean libratzaileak egiten duen txekearen ezeztapen aginduak ez du eraginik izango –KeTXL 138. artikulua–. Honen ez du adierazi nahi ezeztapena ezinezkoa denik; soilik, ezeztapenaren eraginkortasuna aurkezpen epealdia amaitu arte eten egiten dela.

5. Txekearen kentzea, ostea eta galtzea

Legearen 154 eta 155. artikuluek txekearen galtzea, ostea edo suntsipena, edukitzailearen esku dagoenean, aztertzen dituzte. Edukitzaileak,

beste pertsona bati ordaintzea saihesteko eta bere titulartasuna aitortzeko prozedura judizialera jo dezake. Prozedura, 15/2015 Borondatezko Jurisdikzio Legeak [BJL] arautzen du –132. eta hurrengo artikulua²⁴–. Libratzailea baldin bada txeketegia galtzen duena edo berari osten bazaio, berehala jakinarazi beharko dio banku libratuari eta agirien ordainketen aurka jarri beharko da –KeTXL 138. artikulua–.

III. TXEKEAREN BORONDATEZKO ETA DERRIGORREZKO ORDAINKETA

Truke-letra bezala, libratuak –bankuak– txekea borondatez ordaindu ahal izango du aurkezpen unean, edo, hori ezean, edukitzailearen eskariaren ondorioz, libratzaileak borondatez ordaindu ahal izango du. Hala ere, gerta liteke beraietariko inork ere txekea borondatez ez ordaintzea; horrelakoan, edukitzaileak, prozedura judizialaren bitartez, derrigorrezko ordainketa galdatu beharko du.

1. Borondatezko ordainketa

Txekea banku-libratuari aurkezten zaionean, bi suposamendu ezberdin gerta daitezke.

Lehenik eta behin, bankuak txekea borondatez ordaintzen badu, libratzailearen agindua bete ez ezik, gainera, txekearen igorpena eragin zuen kausazko obligazioa betetzez iraungi egingo da –e.b.: erosketaren prezioaren ordainketa edo maileguz emandako kapitala bihurtu–. Kode Zibileko –KZ– 1170.2. artikulua azken honi dagokio. Hala ere, libratuaren ordainketak zeharkako beste zenbait eragin sortarazten ditu: txekearen sinatzaileen –endosatzaile, abal-emaile eta libratzaile– kanbio-obligazio atzeragarriak iraungi egiten ditu, nortzuk askatuak geratzen baitira, eta,

²⁴ Artikulu hauek KeTXL 85, 86 eta 87. artikulua indargabetzen dituzte.

libratzaile-libratuaren arteko harremanetan, bankuaren esku dauden libratzailearen funtsen erabilgarritasuna gutxitu egiten du.

Alabaina, eragin hauek bidezko ordainketak edo zilegiak baino ez ditu sortarazten; ez, aldiz, bankuak egin ahal duen beste edozein ordainketak. Hurrengo hauek dira bankuak egiten dituen bidezko ordainketak: a) Txekea formaz arautua denean –legeak ezartzen dituen betekizunak baititu–. b) Ordainketa lortu nahi duen edukitzaile legitimatari, eta ez beste edukitzaile bati, egiten zaionean, txekearen izaeraren arabera –«eramailleari», «agindura» edo «txeke izenduna»–. c) Libratuaren sinadura zinezkoa denean. Betekizun hauek ordainketan batera ez badaude, bankuak gaizki ordainduko luke eta ezin izango luke haren kopurua libratzailearen funtsen erabilgarritasunetik gutxitu.

Bigarrenik, gerta liteke bankuak txekea ez ordaintzea kobratzeko aurkezten denean²⁵; kasu honetan, edukitzailearentzat komenigarria da protestoa egitea ordainketa eza dela-eta. Halere, hurrengo hau gogoarazi behar da: bankua kanbio-obligatua izan ez arren –KeTXL 109. artikulua–, txekea ordaintzera beharturik dago libratzailearen agindura funtsak dituenean eta txekea erregulariki jaulkia izan denean –KeTXL 108.2. artikulua– Beraz, hurrengo kasuetan baino ezin izango du justifikazioz txekearen ordainketa ukatu: aurkezpenerako epealdia amaitu ondoren ezeztatua izan denean edo libratzaileak jakinarazten dionean edukitzaileak, nahiz eta itxurazko legitimazioa izan, txekea beronen jabea ez zenarengandik eskuratu duela –KeTXL 138.3 eta 154. artikulua–. Bankuaren ukapena justifikazio gabekoa baldin bada, libratzaileak dagokion erantzukizuna eskatu ahal dio kontratu ez betetze dela-eta.

²⁵ E.B.: Funtsa erabilgarri nahiko ez izatea edo libratzailearen sinadura zinezkoa den ala ez zalantzan dagoenean.

2. Derrigorrezko ordainketa

Gerta liteke edukitzaileak prozedura judizialaren bitartez ordainketa eskatu behar izatea –derrigorrezko ordainketa–, bankuak txekea aurkezpen unean ordaintzen ez duenean eta libratzaileak borondatezko ordainketa saiatzan duenean edota saiatzan ez duenean. Egoera honen araubide juridikoa zehazteko zenbait gai azertu behar dira.

1. *Txekearen protesta*. Bankuak txekea, beronen aurkezpen unean, ordaintzen ez duenean, edukitzaileak –Kanbio-Legeak adierazten duen diligentsia bete nahi baldi badu eta zeinen betetzean baitago eraso baliabide prozesalen erabilera– ordainketa ezaren ondorizko protesta egitea eskatu behar du –KeTXL 146.1.a) artikulua–. Kanbio eta Txeke Legeak –Genevako Uniforme Legea jarraituz–, bere 146. artikuluan, tradiziozko notario-protesto prozedurarekin batera, eragin berdinak dituzten beste zenbait ordezkotako prozedura ezagutu eta arautzen ditu: txekean, datarekin batera, banku libratuak ezartzen duen adierazpen soila edo konpentsazio sistema edo ganberaren adierazpen datatua, zeinean txekea lanegun epealdian aurkeztua eta ez ordaindua izan dela etzanarazten baita.

Protestoa, edo bere adierazpen baliokidea, txekea aurkezteko epealdia amaitu baino lehen egin behar dira. Hala ere, txekearen aurkezpena epealdiaren azken zortzi egunetan egiten bada, protesta, edo bere adierazpen baliokidea, aurkezpenaren ondoko zortzi egunetan aurkeztea posiblea izango da; horrela ezartzen du KeTXL 147.1. artikulua. Artikulu honek ere, Legeak 51. artikulutik 56. artikulura arte truke-letrarentzat ezarrita duen araubide juridikoa ezarri egiten die ordainketa ezaren txeke protestoari, jakinarazpen beharrari eta «gasturik gabe-ko» klausulari.

Garaiz eta formaz egindako txekearen protestoak hurrengo eraginak sortarazten ditu: banku libratuak ordainketari uko egin diola egiaztatuz; protestoaren unean txekearen edukia frogatu; edukitzaileak endosatzaile eta abalemaileen kontra dituen akzio atzeragarriak mantentzeko nahi-

taezko betekizuna bete²⁶; banku libratuak bere ordainketa ukapenaren zergatiak sinesgarriro adieraztea posiblea egin –e.b.: funtsa hornidura eza– eta libratua notarioaren aurrean jaukitzea eta ordainketaren eskaintzea posiblea egin.

Protestoa, edo bere adierazpen baliokideak, egiten ez badira, edo epez kanpo egiten badira, txekea kaltetu egingo da. Horren ondorioz, edukitzaileak endosatzaile edo hauen abalemaileen kontrako kanbio-akzioa galdu egingo du.

2. *Txekearen derrigorrezko ordainketa eskatzeko akzioak*

2.1. *Kanbio-akzio atzeragarria.* Legearen 146-tik 153-ra arteko artikuluek eta 1/2000 Prozedura Zibilaren Legearen [PZL] 819. artikulua hurrengo hau adierazten dute, hau da, ordaindu gabeko txekearen edukitzaileak truke-letraren ase gabeko edukitzailearen antzeko akzioak dituela, nahiz eta, beti eta kasu guztietan, akzio atzeragarri izaera izan –KeTXL 146.1.a) artikulua–. Hori dela eta, akzioak ezin izango dira banku libratuaren aurka zuzendu, hau –onarturiko truke-letran ez bezalaez delako obligatu zuzena eta nagusia edukitzailearen aurrean, ez baita txekearen onartzailea –KeTXL 109. artikulua–.

Akzio atzeragarria endosatzaileen –edota berauen abal-emaileen– aurka zuzendu daiteke, baldin eta txekea kobrantzara Legeak ezarritako epealdien barnean aurkezten bada –KeTXL 135 eta 136. artikulua– eta, ordaindu ezean, garaiz eta formaz protestatzen bada. Akzioa, bai ohiko prozedura, bai kanbio-judizio bereziaren bitartez, aritu ahal izango da –PZL 819. artikulua eta hurrengoak–.

²⁶ Aitzitik, libratuaren kontrako akzioak mantenduko ditu, nahiz eta txekea garaiz ez aurkeztu edo protesta, edo bere adierazpen baliokidea, ez egin –KeTXL 146.2. artikulua–.

Era berean, akzio atzeragarri berdina libratzailearen kontra eragin ahal izango da, nahiz eta txekea kobrantzara legezko epealdien barnean aurkeztua ez izan edo, ordaindu ezean, garaiz eta formaz protestatua ez izan –KeTXL 146.2. artikulua–. Honela, libratzailearen egoera txekean trukeletraren onartzailearen antzekoa bihurtzen da, ordainketaren erantzule nagusi eta zuzen gisa.

Edukitzaileak Legearen 149. artikuluan ezartzen diren kopuruak eskatu ahal izango ditu –akzioa edukitzaileak aritzen badu– edota 150. artikulukoak –baldin eta akzioa txekea ordaindu duenak aritzen badu–; kasu hauetan, kanbio akzioa aritzeko ez da beharrezkoa izango libratzaileak eta endosatzaileek beren sinaduraren aldezaurretiko aitortze judizialik egitea –KeTXL 153 eta 66. artikulua–.

Libratzaile eta endosatzaileei buruz adierazi izan dena beren abalemailleei buruz esan daiteke hurrenez hurren, KeTXL 133. artikulua trukeletraren abalaren araubide bezalakoa baita –KeTXL 131. artikulutik 133. artikulura arte eta 35. artikulutik 37. artikulura arte–, salbuespen bat izan ezik: banku libratuak ezin du txekea abalatu.

2.2. Kausazko akzioa. Hartzaile-edukitzaileak akzio hau berarekin negozio edo kontratua –zeinen betepenerako txekea jaulki baizen– hitzartu zuen libratzailearen kontra edo, bere kasuan, txekea jason zuen endosatzailearen kontra –beti ere aipaturiko kausazko harremanaren ondorioz loturik baldin badaude– eragin ahal izango du²⁷. Hala ere, akzio hau txekea kaltetua izan ez denean baino ezin izango da erabili; hau da, garaiz eta formaz aurkeztua eta, ordaindu ezean, protestatua izan denean –KZ 1.170. artikulua–. Beraz, akzio hau libratzailearen kontra beti mantenduko da.

Bestalde, uste izaten da banku libratuaren kontra kausazko akzioa dagoela, bankuak, libratzailearen funtsa hornidura izan arren, txekea justifikaziorik gabe ordaintzen ez duenean –KeTXL 108.2. artikulua–²⁸.

²⁷ 2004ko Martxoaren 22ko AGE.

2.3. *Aberaste akzioa.* Normalean, akzio hau ezin izango da libratzailearen kontra erabili, txekea kaltetua izateak –aurkezpen edo protesto eza dela eta– ez baitio edukitzaileari libratzailearen kontra kanbio-akzioa burutzea galarazten; gainera, aberaste akzioa edukitzaile arduragabeari onartzen zaion azken baliabidea da, honek beste edozein akziorik erabili ezin duenean. Aberaste akzioa onartzeak ez luke zentzurik izango edukitzaileak ohiko kanbio-akzioa gauzatu ahal balu. Hala ere, KeTXL 153.2. artikulua txekeari truke-letrarentzat ezarritako aberaste akzioaren araubidea aplikatzen dio –KeTXL 65. artikulua–, beti ere kausazko eta kanbio-akzioak galdu izan direnean. Libratzailearen kasuan hau nekez gertatuko da, salbu eta halako akzioak preskribitu egiten badira.

IV. AKZIOEN GAINBEHERA ETA PRESKRIPZIOA

Legearen 157. artikulua dioenez, edukitzaileak txekeak jasotzen dituen akzio atzeragarriak endosatzaile, libratzaile eta gainerako obligatuen kontra sei hilabetetan preskribitzen dute, legezko aurkezpen epealdien amaieratik zenbatuz –KeTXL 135 eta 136. artikulua–²⁹. Aldiz, txekea ordaindu duenari darizkion akzioak gainerako obligatuen kontra sei hilabetetan preskribitzen dute, obligatuak txekea ordaindu duen egunetik edo bere kontra akzioa eragin den egunetik zenbatuz.

Legearen araubideari hurrengo ondorioak darizkio. Lehenik eta behin, preskripzio epealdiak truke-letrari darizkion akzioentzat ezarritakoak baino laburragoak dira, orokorrean –KeTXL 157 eta 88. artikulua–³⁰. Bigarrenik, preskripzio epealdiek eragina dute libratzaile, endosatzaile eta abalemaileen kontrako kanbio-akzioan, baina ez kausazko akzioan, zeinen preskripzioa

²⁸ 2006ko Apirilaren 7ko AGE.

²⁹ 1993ko Irailaren 30eko AGE.

³⁰ Egoera hau ulergarria izan daiteke, agian, txekea ordainketa eta ez kreditu baliabidea delako.

izaera zibileko akzio pertsonalen epealdia baita, azpiko kontratu edo negozio motaren arabera –KZ 1964. artikulua eta hurrengoak–. Hirugarrenik, libratzailearen kontrako akzioaren kasuan, preskripzio epealdi hauek txekea bai garaiz protestatua izan zein izan ez aplikatzen dira; aitzitik, protesto ezak endosatzaile edo abalemaileen kontrato akzio atzeragarrien gainbehera edo galtzea eragiten du. Laugarrenik, endosatzailearen kontrako edukitzailearen aberaste akzioak hiru urtetan preskribitzen du, kanbio akzioa amaitzen denetik zenbatuz –KeTXL 153.2 eta 65. artikulua–. Gauza bera gertatzen da libratzailearekin; hala ere, kasu honetan, aberaste akzioak ez du onurarik izango: alde batetik, libratzaileari dagokionez, txekea kaltetua izango ez delako dagokion aurkezpen edo protesto eza dela-eta; bestetik, edukitzailearen eskubidea txekearen ordainketa eskatzeko, kanbio edo adierazpenerako judizio prozeduraren bitartez, ez delako gainbeheratuko. Hala ere, libratzailearen kontrako aberaste akzioak bai izango du zentzua kanbio akzioek preskribitzen badute 157. artikuluaaren aplikazioaren ondorioz. Azkenik, adierazitako akzioen preskripzioa Kode Zibileko 1973. artikuluko egintza eta gertaerek eten egiten dute³¹.

V. TXEKE BEREZI MOTAK

Trafiko ekonomiko modernoaren beharrianek txeke mota berrien agerpena bideratu dute; hauek, zenbait ezaugarrien ondorioz, berezi modukoak har daitezke ohiko eredu edo eskemaren aurrean. Mota nagusiak hurrengo hauek dira.

1. *Txeke gurutzatua*. Txekearen libratzaile edo edukitzaileak txekea bere aurrealdean bi barra paraleloekin gurutzatu egiten du –KeTXL 143.1. artikulua–; barren artean zein bankuari ordaindu behar zaion adierazten da: a) Banku zehatz bati, bere izeneztapenaren bitartez identifikatuz –

³¹ Egoera honetan ez da Merkataritza Kodeko –MK- 944. artikulua aplikatzen –KeTXL 158.2. artikulua–.

«txeke gurutzatu berezia»-. b) Zehazten ez den banku bati, «banku» edo «konpainia» adierazpenak soilik ezarriz. c) Bi barrak soilik ezarriz, azken bidezko edukitzaileak libratuari kobrantzara aurkeztuko dion bankua aukeratu ahal izango du –«txeke gurutzatu orokorra»-. Kasu guztietan, txekea kobrantzarako aurkeztuko duena bankua baino ez dela izango ziurtatu nahi da. Honela, bidezko edukitzaile ez bezalako pertsonak txeke lapurtu edo galduak kobratzea ekidin nahi da. Helburu hau txekearen kobrantza kontu korronte batean ezarriz lortzen da; horrela, txekearen zenbatekoa kobratu izan duena identifikatu ahal da.

2. *Konpentsaziorako edo kontuan ordaintzeko txekea.* Txekete mota honek aurreko motaren bezalako eraginak ditu eta hurrengo kasuan izaten da; hau da, hartzailearen alde jaulkitzen da, beronek bere bankuari esleitzeko bere kontu korrontean zenbatekoa sartuz. Beraz, banku libratuak zenbatekoa eskudirutan ordaintzea ekiditen da –KeTXL 145. artikulua–.

3. *Bidaiarako txekea* –«traveller's check»-. Kanbio Legeak ez du arautu txekete mota hau. Txekete hau bankuak jaulkitzen du norbaiten alde izendun eran –zeinek normalean bere zenbatekoa bere jasotze unean ematen baitu–. Txeketearen berezitasuna hurrengo da, hau da, bere titularrak banku igorlearen edozein agentzia edo sukurtsal –bai nazionala edo atzerriarra– edo bere korrespontsalen bulegoetan kobratu ahal izango duela. Horrela, bere bidezko edukitzailea bere izen abizenen bitartez ez ezik, bere bi sinaduren bitartez ere identifikaturik geratzen da –bata, igorlearen aurrean ezarriz eta, bestea, libratu-ordaintzailearen aurrean txeketean bertan ezarriz bere ordainketa eskatzen den unean–³². Txekete hauek beren jaulkipen unetik zenbateko zehatza eta zehaztua dute.

4. *Adostutako txeketea.* Txekete honek banku libratuaren adierazpena erantsia darama; adierazpenak txeketearen benetakotasuna eta bere ordainketari aurre egiteko funtsa nahiko dagoela egiaztatzen ditu –KeTXL

³² Bidaietan, diruaren ordezt erabiltzen dira.

110.2. artikulua—. Adostasun adierazpena «ontzat emandako», «ados», «ziurtatua» edo antzeko beste adierazpen baten bitartez txekean ezarri beharko da eta data ere jarri beharko da. Neurri batean, banku libratu berak ordainketa bermatzen duen txekea da, adierazpena ezeztatzina baita –KeTXL 110.3. artikulua—.

Denbora epealdi jakin batean libratzailearen kontuan funtsak daudela egiaztatzen da eta, horrela, banku libratuak txekean aipaturiko zenbatekoa betetzeko behar den funtsa hornidura atxiki edo blokatzeko obligazioa du. Txeke honen helburuak, funtsean, bi dira; bata, hartzailea izan daitekeen pertsonaren konfiantza gehitzea, bankuak funtsak atxiki edo blokatu dituzenez txekea ordaindua izango dela ulertaraziz; bestea, merkataritza erakundeek diruaren ordezkotako ordainketa baliabide gisa onartzea gero eta gehiago. Bankuak funtsa hornidura gordetzeko obligazioa jasotzen du; beraz, ezin izango ditu horniduran eragina izan dezaketen libratzaileak geroago eman ahal dizkion jarraibide edo aginduak bete, ez eta horniduraren gainean konpentsazio edo antzeko beste egintzarik ere. Hala ere, bankuak onartzen duen obligazioa –batez ere funtsen atxikitzea– ez da mugagabea denboraz; adierazpenean edo, horren ezean, 135. artikuluan ezarritako epealdiaren epemugan amaitzen da; hau da, aurkezpenerako ezarritako epealdian –KeTXL 110.2. artikulua—³³.

5. *Bermatutako txekea*. Txeke honek txeketegia jaulkitzen duen banku berak egiten duen adierazpena erantsita du; adierazpenaren bitartez, txekearen bidezko edukitzaileari ordaintzeko obligazioa jasotzen du, bankuak eta bezeroak «bermatutako txekeei buruzko kontu korrante» kontratuan alde aurretik hitzarturiko zenbait betekizun betetzen badira –bereziki, gehieneko zenbatekoari buruz—. Txeke honen bitartez, banku libratuak txekea ordaintzeko bermea eta tituluan bertan bere sinadura ezartzeagatik «kartular» deritzon obligazioa jasotzen ditu³⁴. Libratuak kasu honetan onar-

³³ *Vide* 2007ko Martxoaren 6ko AGE.

³⁴ 1997ko Urriaren 19ko AGE.

tzen duen eginkizuna adostutako txekearena baino handiagoa da: adostutako txekean bankuak egintza bat baino ez du egiaztatzen –funtsak egotea–; aldiz, bermatutako txekeak ordainketa egiteko obligazio zuzena jasotzen du, funtsak egon zein egon ez. Ezaugarri honek eta onartzailearen antzeko egoera izateak, txeke mota hau espainiar Zuzenbide Positiboan onartua ez egotea eragiten dute –KeTXL 109. artikulua–.

6. *Banku txekea*. Txeke hau kreditu erakunde batek jaulkitzen du bere kontu korrontearen kontra beste erakunde batean edo libratzaile berberaren beste sukurtsal batean [1999ko Apirilaren 26ko AGE]³⁵. Legeria, dirudi, txeke honetaz ari dela KeTXL 112.c) artikuluan: txekea libratzaile beraren kontra jaulki ahal da, baldin eta titulua bere establezimendu ezberdinen artean jaulkitzen bada. Txeke honek, juridikoki eta formaz, ezberdintasun bakarra du ohiko txekearekiko; hau da, libratzaile beraren kontra jaulkitzen dela. Praktikan, aldiz, bere kobrantzarako aparteko segurtasuna ematen duen ordainketa baliabidea bihurtzen da, esku-diruaren bezalako funtzioa betetzen baitu³⁶.

³⁵ 2006ko Apirilaren 7ko AGE-k hurrengoa adierazten du: banku txekearen ordainketa obligaziozkoa dela eta ezin dela edukitzaile eta libratuaren arteko inolako azpi kontratu berri eta burujaberik eskatu.

³⁶ Normalean, txeke mota hau inoren zorrak kitatzeko jaulkitzen da –bankuari txeke honen jaulkipena eskatzen dioten bezeroen zorrak–. Hala ere, banku libratzaile berak sortu dituen zorrak ordaintzeko erabili daiteke.